

ERANSKINA

TEKAZELentzat Berariazko Hizkuntza-Prestakuntza 2026ko HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA IVAPeko Berariazko ikastaroak

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak, EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian onartuta duen moduan, "hizkuntza-prestakuntza" eskaintzea du 4. Ardatz estrategikoaren helburu eta ekintzen artean.

IVAPek 2026. urterako hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro horiek gainontzeko administrazioetara zabaldu ditu, eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eskaintza hori zabaltzea erabaki du.

IVAPek egindako eskaintza horretatik, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak, beheko taulan ageri den ikastaroen eskaintza egiten die TEKAZELei.

- Ikastaro bakoitzak bere fitxa teknikoa dauka IVAPeko webgunean, ikastaroaren berezitasunak eta bete beharreko baldintzak barne.
- Eskaerak aurkezteko epea: maiatzaren 25etik ekainaren 10era bitartean (biak barne). Ez da onartuko epeaz kanpoko eskaerarik. IVAPeko fitxa teknikoan ageri den epea ez da kontuan izango, Errektoreordetzak barne-antolakuntzarako baldintzak ere kontuan hartu behar baititu.
- Ikastaroen kostua Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak hartuko du bere gain, baina ez bestelako gastuak (joan-etorriak, materiala, etab.)

Eskaerak egiteko

Eskaerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakiaren bidez aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eu/web/forms/shared/-/form/65577564>

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori EHUren erregistro elektronikoan erregistratuko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, EHUren txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro-gaietan laguntzeko EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro-gaietan laguntzeko EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio-espeditente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita EHUko

idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea EHUⁿ; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Onartua izateko baldintzak

- Langileak lan harremana izan beharko du eskatutako ikastaroa amaitu arte.
- Ezinbestekoa izango da zerbitzuburu edo nagusiaren oniritzia izatea, webgunean eskuragarri dagoen lan-txostena sinatuta.
- Ikastaro bakoitzaren fitxa teknikoan ageri diren bete beharreko baldintzak langileak bete behar ditu ikastaroa eskatu ahal izateko.
- Langile bakoitzak ezin izango du ikastaro bat baino gehiago eskatu urtero (urte naturala). Hala ere, langileak ikastaro bat baino gehiago eskatuko balu, Errektoreordetzak, onartuz gero, eskari gutxien egondakoan onartuko lioke.
- Kontuan izanda IVA^{Pek} oso plaza gutxi eskaintzen dituela administrazio guztietarako, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eskaerak onartzeko irizpideak honako hauek izango dira:
 - ❖ Lehentasuna lehenengo heltzen direnek izango dute.
 - ❖ Ez dira onartuko egun eta ordu berean beste ikastaro batean daudenen eskaerak. Alegia, 2026/2027 ikasturtean zehar IVA^{Peko} liberazioaren bat baldin badute (5 ordukoa edo 2 ordukoa), edota hobekuntza-ikastaroren bat egiten baldin badaude.
 - ❖ Ezin izango da ikastarorik errepikatu hurrengo deialdietan, halakorik balego.
 - ❖ Eskaera-orrian datu guztiak betetzea.
 - ❖ Ez dira onartuko, aurreko urtean ikastaroren bat eskatu eta ondoren egin ez errektoreordetza honetara inolako abisurik eman gabe ikastaroa egin ez duten eskaerak.

Taldeen antolakuntza:

- Ikastaroak IVAPeK ematen ditu. Beraz, fitxa teknikoan ageri diren egun eta orduetan egingo dira.
- Ikastaroa egiteko onartuei, ikastaroak irauten duen denbora (soilik) emango die unibertsitateak. Horretarako, [Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentziaren ebazpenaren 15. artikuluan ezarritakoa beteko da; ebazpen horren bidez, teknikarien, kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetao langileen \(TEKAZEL\) lanaldi, lanorduetan kontrol, opor eta baimenei buruzko 2026ko zirkularra onartzekoa, hobekuntza ikastaroek ematen zaien tratamendu bera emanez.](#)

Onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko ebazpena

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak webgunean argitaratuko du onartu eta baztertu diren eskaeren behin-behineko ebazpena, eta hamar egun balioduneko epea emango du alegazioak aurkeztu ahal izateko, hala badagokio.

Onartutako eta ukatutako eskaeren behin betiko ebazpena

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak webgunean argitaratuko du onartu eta ukatu diren eskaeren behin betiko ebazpena.

Ondoren, Euskara eta Hizkuntza Plangintzako Errektoreordetzak ofizioz IVAPen aplikaziora igoko ditu behin betiko ebazpenean onartutako eskaerak. IVAPeK beste administrazioei eskaintzen dizkien plazak mugatuak direnez, ikastaro bakoitzean jasotako matrikula-kopuruaren arabera, plaza-kopurua gainditzen den kasuetan, baliteke IVAPeK eskaeraren bat ez onartzea, nahiz eta EHUren ebazpenean onartu izan.

Esleipendunei jakinaraztea IVAPeK ikastaroetan onartuak izan diren ala ez

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak posta elektronikoz jakinaraziko die interesdunei IVAPeK onartu edo baztertu dituen.

Ikastaroak

JB: Online ikastaroa, baina saio batzuk aurrez aurrekoak edo zoom bitartez egingo dira.

L: Online ikastaroak

Mod.	Ikastaroa	Modalitatea	Iraupena	Ikastaroaren hasiera data	Ikastaroaren amaiera data	Fitxa Teknikoa
JB	2.HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	15 ordu	2026-10-01	2026-10-22	Fitxa teknikoa
JB	3.HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	15 ordu	2026-10-01	2026-10-22	Fitxa teknikoa
JB	4.HE: idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	15 ordu	2026-10-01	2026-10-22	Fitxa teknikoa
L	Bilera-akta, iragarkia eta txostena	Online	20 ordu	2026-10-01	2026-10-29	Fitxa teknikoa
L	Administrazioan komunikazioa erraztu	Online	15 ordu	2026-10-01	2026-10-29	Fitxa teknikoa
L	Lenguaje inclusivo	Online	20 ordu	2026-10-01	2026-10-29	Fitxa teknikoa
JB	Ahozko jarduna aberastu	Online	18 ordu	2026-11-02	2026-11-13	Fitxa teknikoa
L	Hizkuntza inklusiboa	Online	20 ordu	2026-11-02	2026-11-27	Fitxa teknikoa
L	Gutuna eta ofizioa	Online	15 ordu	2026-11-02	2026-11-27	Fitxa teknikoa
L	Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria	Online	20 ordu	2026-11-02	2026-11-27	Fitxa teknikoa
L	Cómo escribir para la web	Online	20 ordu	2026-11-02	2026-11-27	Fitxa teknikoa
JB	2.HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	10 ordu	2026-11-16	2026-12-04	Fitxa teknikoa
JB	3.HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	10 ordu	2026-11-16	2026-12-04	Fitxa teknikoa
JB	4.HE: ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	Online	10 ordu	2026-11-16	2026-12-04	Fitxa teknikoa